

BERDINBERRI BIZKAIA

2019 APIRILA



ZER GERTZEN DA BERDINBIDEAN?

Ikasketen aukeraketan generoak ba al du eraginik?



EZAGUTZEN...

Lorena Fernandez. INSPIRA STEAM



GURE UDALAK MARTXAN

Berrizko Udala



JARDUNBIDE EGOKIAK BIZKAIAN

Arrigorriagako Udala

Zer gertatzen da Berdinbidean Bizkaian?

IKASKETEN AUKERAKETAN GENEROAK BA AL DU ERAGINIK?



Neska eta mutilek aukeratzen dituzten ikasketak gizartean kulturalki erantsitako rol eta estereotipo tradizionalekin lotuta daude.

Neskak oraindik bere burua ileapantzaile, gizarte langile, erizain edo irakasle moduan ikusten dute eta mutilak berriz, mekanikari, soldatzaile, enpresari, ingeniari edo industrian lan egiten.

Zenbait datu

Emakundeko 2018ko ZIFRAK, Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzkoak, Lanbide-heziketan, emakumeen presentzia txikiagoa da (ikasle guztien % 35,1 erdi-mailako zikloetan eta % 36,6 goi-mailakoetan). Horietatik gehienak, gainera, Osasuna eta Irudi Pertsonala familia profesionaletan biltzen dira; gizonak, aldiz, industria-sektoreko familietan.

Unibertsitate-ikasketen artean, emakumeen eta gizonen presentziak desberdinenak diren adarrak Osasun Zientziak (emakumeak % 75,4 dira) eta Ingeniaritza eta Arkitektura (gizonak, % 72,5). Unibertsitate-ikasketetan, halaber, irakaskuntzarekin, hizkuntzarekin, zaintzarekin, etab., lotuta dauden graduatan dira nagusi emakumeak. Gizonak, aldiz, ingeniartzetan.

Informazioa, industria 4.0, bioteknologia, energia berriztagarriak etabarren aroan bizi gara eta profesio teknologiko eta zientifikoak etorkizun handia duten lanbideak dira. Confebasken arabera, 2 urtetan lanbide-heziketatik etorritako profilen eskaera %56a hasi da eta unibertsitate-ikasketen %25a.

Emakumeen presentzia arlo hauetan handitzea ezinbestekoa da. Horretarako oztopo eta estereotipo tradizionalak apurtu beharra dago, enpresa, familia, ikastetxe eta emakume eta neskekin elkarlanean lan eginez, beti ere fokua genero ikuspegian jarritz. Administrazioek bultzatutako heziketa eta lan arloko programek barneratu behar dute ikuspegi hau, ezin baitugu industriaren iraultza berri honetan berriro ere emakumeak baztertu.

Ezagutzen...

LORENA FERNÁNDEZ

Lorena Fernández, Deustuko Unibertsitateko identitate digitalaren arloko zuzendaria, Inspira STEAM taldeko kidea eta mentorea. Gaur egun, "Gendered Innovations" izeneko Europako Batzordeko adituen taldeko kidea da.

Zeintzuk dira programaren helburuak? Noiztik eta nortzuk ari zarete parte hartzen?

Inspira STEAM (<http://inspirasteam.net>) neskaiten artean bokazio zientifiko eta teknologikoa sustatzeko proiektu aitzindaria da Euskadin. Sentsibilizazio eta orientazio ekintzak ditu oinarri; ikerketa, zientzia eta teknologiaren munduko emakumeen eskutik. Lehen hezkuntzako ikasleen artean STEAM (Science, Technology, Engineering, Arts and Maths) arloen sustapenerako taldeko mentoring izeneko teknika erabiltzen den lehen aldia da. Helburuak honakoak dira:



- Teknologiaren munduko gertuko emakumeen erreferenteak ematea.
- Hurrek STEAM arloen inguruko lanbideak ezagutzea.
- Herrialdeen garapena emakume eta gizonen artean gauzatu beharraren garrantziaz ohartaraztea.
- Teknologia arloko ikasketen inguruko sentsibilizazio eta orientazioa ematea.
- Teknologia arloan lan egiten duten emakumeak ikusarazi eta balioa ematea.
- Estereotipoak agerian jartzea, ikasketak aukeratzeko unean traba izan ez daitezen.

Deustuko Unibertsitateak sustatutako proiektua da, Innobasqueren laguntzarekin eta hiru foru aldundiek finantzatuta: Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak, eta BBK.

2016an abiatu zen, 11 ikastetxetan lan eginez, 17 mentorerekin; eta 220 neskatilarengana heltzea lortu zen. Bigarren edizioan, mentore kopurua 102 izatera pasa zen, ahoz ahokoari esker, eta lehenengo edizioko esperientzia ona ikusita. Euskadiko 44 ikastetxek parte hartu zuten, eta 1.354 neskatila eta 1.246 mutiko izan ziren hartzaileak. Urte horretan Inspira STEAM Katalunia eta Madrilen ere egin zen. Hirugarren edizioan (eta orain arteko azkena, nahiz eta laugarrenarekin lanean egon dagoeneko), Euskadin 159 mentore izan ditugu, 81 ikastetxe, eta neskatila eta mutiko kopurua 2.078 eta 2.062koa izan da, hurrenez hurren. Aurten Andaluzia eta Galiziako nodoek bat egin dute.

Zeintzuk dira bere indarguneak?

Hainbat indargune aipa ditzakegu: Lehena, neskatila eta mutikoei gertuko erreferenteak ematen dizkiegula. Jocelyn Bell autore astrofisikoak esaten duen moduan: “Marie Curieren erreferenteaz gain, gizarteak eredu arruntak behar ditu, egunerokoak, bokazio zientifikoak motibatuzeko.”

Bigarren indargunea zera da: 6 lan-saio direla, ikas-ordutegiaren barruan. Hori funtsezkoa da niretzako; izan ere, neskatilekin konfiantzazko harreman bat sortu behar da, gure eguneroko lanari buruzkoa galderak egin ditzaten. 6 saio horietan STEAM arloko gaiez hitz egiten diegu, horiekin erlazionatutako estereotipoez, Historian zehar eta gaur egun zientzian eta teknologian garrantzitsuak izan diren emakumeez, dena esperimendu eta jokoen bidez.

Hirugarren indargunea mentoring prozesuarena da: Lehen hezkuntzako seigarren mailan daudenak bigarren hezkuntzara igarotzear daude, eta sasoi horretan neskek beren buruaz duten pertzepzioa aldatzen hasi ohi da.



Ziurgabetasunak, beldurrak eta autoestimu arazoak agertzen dira. Ikerketa batzuen arabera, bokazioak, lehentasunak eta oinarrizko interesak adin horretan adierazten hasten diran, baina eraginak lehenago jasotzen dira. 11 eta 13 urte bitartean definitzen da gustatzen zaiena eta ez zaiena gustatzen, zertarako gai ikusten duten beren burua eta zertarako ez.

Zein da Inspira STEAM programaren erronka nagusia?

Inspira STEAM proiektuaren erronka handia da neskatilek askatasun osoz erabaki dezatela zer izan nahi duten.

Nola parte hartu dezakete Berdinbidean sarean parte hartzen duten herriak?

Apiirilean laugarren ediziorako deialdia egingo diegu ikastetxe eta mentoreei. Proiektuaren webgunean izena emateko aukera izango dute: <http://inspirasteam.net>.

Zer inplikazio dauka Inspira STEAM gisa zentroan parte hartzeak?

Konpromisoa, ilusioa eta STEAM arloak ikasleen artean, bereziki nesken artean, sustatzeko gogoia. Gainera, informazio saioetan parte hartu beharko dute eta lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleekin 6 mentoring saioak garatu, gutxi gora beherako ordubetekoak, eskola ordutegian. Mentoretza saioak 2019ko irailetik abendura bitartean garatuko dira, gutxi gora behera, zentroak eta mentoreek adosten dituzten egun eta orduetan.

Gure udalak martxan...

BERRIZKO UDALA

Berrizko Learreta Markina eskolak 2018-2019 ikasturtean Inspira Steam programak eskainitako proiektuan parte hartu du.

Honetan, lehen hezkuntzako seigarren mailan dauden 31 neskek 10 orduko sentsibilizazio eta formakuntza saioetan parte hartu dute. Saio hauetan, ingeniari eta zientzia arloko bi profesionalekin neskek teknologia, matematika, arte eta ingeniari arloetan daukate interesa piztu nahi dute.

Irakasleek ere formakuntza jaso dute programa honen bidez, eta hauen eta ikasleek balorazioak oso positiboak izan dira, ahaldunduta eta gustura sentitu direla baieztatuz.



Deialdiaren informazioa ikastetxera heldu zenean, batxilergo teknologiko eta zientifikoan nabaritzen duten genero-segregazioa gainditzeko aukera bat bezala hartu zuten.

Gaur egun, Berrizko Learreta Markina eskolak Eusko Jaurlaritzako hezkuntza arloko STEAM programan parte hartzeko proiektua bukatzeaz dago. Izan ere, datorren urteetan proiektu integrala sustatu nahi dute ikastetxean eta berdintasun ikuspegia erabat txertatu robotika eta baratzaren bidez, esperientzia praktikoak erabiliz metodologia motibagarria bezala.

Jardunbide egokiak Bizkaian

ARRIGORRIAGAKO UDALA

2007-2008ko ikasturtetik, Arrigorriagako Udaleko Berdintasun Arloak institutuko DBH4.mailako neska mutilei zuzendutako "Lanbide orientazio ez sexistarako" programa bultzatu du.

Hiru orduko formakuntza honetan, dinamika parte hartzaile ezberdinen bidez, hedabideetatik, familiaratik edo gizartetik barneratutako estereotipo sexistak bertan behera uzten dira, nesken autonomia eta banakako independentzia sustatuz. Horretarako, bideoak eta internetetik edo egunkarietatik zabaldutako lan eskaintzak aztertzen dira, taldeka hausnartzeko eta gaur egungo lan merkatura hurbiltzeko.

Oraindik ere ikus dezakegu segregazio handia lanbideen aukeraketan. Neskek, zaintzarekin erlazionatuta dauden lanbideetan interesa aurkezten dute: hezitzaileak, erizainak ... Bestetik, talde lanak eta lan giroa egokia izatea lehenesten dute. Mutilek, aldiz, industria, ingeniariatza, edo kirolekin erlazionatutako lanbideetan interesa daukatela adierazten dute eta soldata egokia izatea da euren lehentasuna.



Programa honetan, lanbide feminizatueta lan egiten duten mutilak eta lanbide maskulinizatueta lan egiten duten emakumeak parte hartzen dute, ikasleekin bere esperientzia konpartituz (emakume metro gidariak, zaintzan lan egiten duten mutilak, besteak beste).



Era honetan, azken 13 urteetan 1000 ikasle parte hartu ahal izan dute Berdintasun Arloak sustatuko programan honetan, heziketa edo lanbide aukeraketan barneratuta ditugun genero rol eta estereotipoen eraginaren inguruan hausnartzeko gunea eskainiz.